

# AURREKONTU OROKORRAK 2016

*Laburpena kapituluaren arabera*





OIARTZUNGO  
UDALA

## **AURKIBIDEA**

1	2016 urteko aurrekontu orokorra.....	3
2	Kapituluen azalpena.....	5
2.1	Gastuak.....	5
2.2	Sarrerak .....	5

# 1 2016 urteko aurrekontu orokorra

2016. URTERAKO GASTUAK						
KAPITULUA	UDALA	OKISA	OTASA	EGOKITZE	GUZTIRA	
I	Pertsonal gastuak	4.384.581,32 €				4.384.581,32 €
II	Ondasun arrunten erosketak	4.916.991,52 €	355.000,00 €	57.400,00 €		5.329.391,52 €
III	Finantza Gastuak	126.602,28 €		100,00 €		126.702,28 €
IV	Transferentzia arruntak	3.281.960,90 €			239.000,00 €	3.042.960,90 €
VI	Inbertsio errealak	1.941.000,00 €	340.000,00 €			2.281.000,00 €
VII	Kapital transferentziak	347.880,00 €			340.000,00 €	7.880,00 €
VIII	Aktibo finantzieroak	1,00 €				1,00 €
IX	Pasibo finantzieroak	860.643,98 €				860.643,98 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>15.859.661,00 €</b>	<b>695.000,00 €</b>	<b>57.500,00 €</b>	<b>579.000,00 €</b>	<b>16.033.161,00 €</b>
2016. URTERAKO SARRERAK						
I	Zuzeneko zergak	5.435.400,00 €				5.435.400,00 €
II	Zeharkako zergak	300.000,00 €				300.000,00 €
III	Tasak eta bestelako sarrerak	2.865.810,00 €	100,00 €			2.865.910,00 €
IV	Transferentzi arruntak	6.939.100,00 €	231.000,00 €	27.500,00 €	239.000,00 €	6.958.600,00 €
V	Ondarezko sarrerak	76.350,00 €	123.900,00 €	30.000,00 €		230.250,00 €
VI	Besterentzeak: inbertsio erreal.	243.000,00 €				243.000,00 €
VII	Kapital Transferentziak	- €	340.000,00 €		340.000,00 €	- €
VIII	Aktibo finantzieroak	1,00 €				1,00 €
IX	Pasibo finantzieroak	- €				- €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>15.859.661,00 €</b>	<b>695.000,00 €</b>	<b>57.500,00 €</b>	<b>579.000,00 €</b>	<b>16.033.161,00 €</b>



## 2 Kapituluaren azalpena

### 2.1 Gastuak

**1. kapitulua: Pertsonal gastuak.** Udalak plantilan dituen langileen soldatak, behin behinekoz kontratatuta dituenak, kargu politikoen soldatak,...

**2. kapitulua: Ondasun arrunt eta zerbitzu gastuak.** Material erosketak, zerbitzu kontratuak,...

**3. kapitulua: Finantza gastuak.** Atal honetan maileguen interesen ordainketarako partidak aurreikusten dira.

**4. kapitulua: Transferentzia arruntak.** Diru-laguntzak, udalak kide diren erakundeetara egiten dituzten diru ekarpenak, ... aurreikusten dira.

**6. kapitulua: Inbertsio errealak.** Inbertsiotarako dagoen partida da hau. Hemen aurreikusi behar dira aurreikusten diren inbertsio guztiak.

**7. kapitulua: Kapital transferentziak.** Beste ente edo erakundeetara egiten diren diru erakarpenak dira hauek.

**8. kapitulua: Finantza aktiboa.**

**9. kapitulua: Finantza pasiboa.** Udal batek eskatuak dituen kredituak kitatzera edo amortizatzerazuzendutako partida da hau.

### 2.2 Sarrerak

**1. kapitulua: Zuzeneko zergak.** Udalen eskumenekoak diren 5 zergetatik eratorritako sarrerak izango dira hauek: IAE (*Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zerga*), OHZ (*Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga*), trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga (biñeta), plusbalia eta hirigintza zergak.

**2. kapitulua: Zeharkako zergak.** Herritarrek lizentzien trukean pagatzen dituzten zergak dira.

**3. kapitulua: Tasak eta bestelako sarrerak.** Udalak ematen dituen hainbat zerbitzuren trukean kobratzen dituen tasek osatzen dute diru sarbide hau (hondakinak, ura, ...).

**4. kapitulua: Transferentzia arruntak.** Hemen beste erakunde publikoetatik eratortzen diren diru-laguntzak (Eusko Jaurlaritza, beste administrazioak, ...) eta Foru erakundeetatik datozen partidak jasotzen dira. Azken honi dagokionez, urte hasieran Foru Aldundiek aurreikuspen bat egiten dute eta hroren baitan antolatzen dituzte udalek aurrekontuak.

**5. kapitulua: Ondare sarrerak.** Udal jabetzakoak edo jabari publikokoak diren ondasunek sortutako mozkinetatik eratortzen diren sarrerak dira: basoen ustiaketatik, alokairuetatik eta abar.

**6. kapitulua: Besterentzeak: inbertsio errealak.** Udal jabariaren besterentze edo salmetatik eratortzen diren ekarpenak: lurren salmentatik eratorritakoak, jabari publikoko ondasunen salmentatik eratorritakoak,...

**7. kapitulua: Kapital transferentziak.**

**8. kapitulua: Finantza aktiboa.**

**9. kapitulua: Finantza pasiboa.** Udalak eskatzen dituen kredituak dira hauek.